

Ataun Villafrancatik desanexionatu zeneko 400. Urteurrena

Iraganaren garrantziaz jabetuta, oraingo honetan Ataungo herriaren Villafrancako herritik emandako desanexioa gertaera historikoa berreskuratu nahiean gaude, iraganaren pasarte historiko honi buruz gehiago jakitu nahiean eta iragan historikoaren garrantziaz jabetu nahiean. Duela 400.urte Ataungo herria Villafranca herritik desanexionatu zen aurretik galdutako autonomi instituzionala berreskuratuz. Gertaera hau dela eta , eta gertakari historiko honi buruz gehiago jakitearen jakinminez Inazio Munduate herritarrak , lan historikoa egin du, pasarte historiko honetako datuak eta gertaeren berri ikertuz.

Ataunen sorrera

Gure herria Villafranca hiritik banandu zeneko 400. urteurrena aurten betetzen dela eta, herritarrei orduko gertaera batzuk argitu nahi dizkiegu aurkitu ditugun dokumentuen bidez.

Ezer baino lehen, nabarmendu nahi dugu ez dela nahastu behar aurten ospatzen den urteurrena Ataunen sorrerarekin. Izan ere, lehenagokoak dira bertakoek herri gisa egituratzeko erabilitako hainbat antolaketa-modu.



Ataunen jatorria ezezaguna da, baina bere izatea ziurtatzen dute bertako leize eta kobetan aurkitutako giza hezurrek, abere-hondakinek, txanponek, saeta puskek eta abarrek.

Juan Arin Dorronsoro apaiz jaunak, Don Juan Txikik, alegia, egin zituen Ataunen inguruko lan eta azterketa gehienak. Eusko Ikaskuntza elkarteak 1925ean argitaratutako lan batean agertzen digunez, honako hamalau etxe hauekin sortu zen Ataun: Axarresta, Larraza, Astigarraga, Arrondoa, Arin, Telleri, Zaindegi, Iztator, Okaraitzi, Atallo, Barandiaran, Auzmendi,

Bazterrika eta Etxagora.

Ataun izenak bailarako ate edo pasaleku zela adierazten digu, eta, nonbait, erromatarren garaitik ibilgune edo pasaleku garrantzizkoa zen Athavit edo Athagun gisa ezagutzen zen gure herria. Horrez gain, erasoaldietatik babesteko, Jentilbaratza izeneko gaztelu bat zegoen Arratetako harrobi gainean. Antzinako gaztelu gehienak bezala, jentil edo gizaki mitologiko indartsuek eraiki omen zuten, eta bertan bizi omen ziren gaztelua

zaintzen zutenak. Zaila zen bertara iristea, eta leku aproposa zen ingurua zaindu eta babesteko.

1200. urtean, Gaztelako erresumak Araba eta Gipuzkoa bereganatu zituen eta hango hamabost gazteluren jabe egin zen; haien artean zegoen, nola ez, Athavit edo Athagun, eta baita Auza (Zaldibia), Beloaga (Oiartzun) Trebi o, Arganzon, Oka eta Kanpezu ere, besteak beste.

Gazteluak garrantzitsuak ziren Gaztelako errege jaunarentzat, itsasertzeko bideak eskuratu eta merkataritzaren sarrerairteerak zaindu edo kontrolatzeko. Horretarako,

aurretik, Hondarribia, Mutriku eta Getaria hiribilduak sortu zituen, eta, geroxeago, Donostia, Tolosa, Villafranca eta Segura hiribildu izendatu zituen.

Deigarria bada ere, Jentilbaratza gazteluak 1265ean Nafarroako erregearen mende jarraitzen zuen. Urteetan zehar hainbat gaztelu-jaun edo alkaide egon ziren bertan, 1378an Karlos III.aren aginduz gaztelua egotzi edo desegin arte.

“Libro de Ayuntamiento de los caballeros hijosdalgo de la Universidad de Ataun, donde se asientan los acuerdos que hazen en sus Ayuntamientos, desde primero de enero de mil seiscientos catorze en adelante.

Esta Universidad, por la clemencia Dibina, salió de la esclavitud por merced de nuestro Rei y Señor natural Don Phelippe tercero de este nombre que desde el cielo le dé Gloria y a sus progenitores salud umana en días ciento de cada semana y al fin de la eterna, Amen”.
[AUA-001-01 or.]

Villafrancarekin anexionatzea


Gaztelako erregearen aginduz Jentilbaratzako gaztelua desegin ondoren, Gipuzkoa gaztelaren esku gelditu zen. Nonbait, ordea, Ataunek Nafarroarekiko loturak ez zituen erabat hautsi: badakigu 1265ean Diego Lopez de Arbizu alkaide jaunak 50 “cahiz” gari jasotzen zituela Nafarroako gobernutik. Alkaide jaun haren ondoren, beste alkaide batzuk izendatu zituzten, eta azkenekoa 1350ean izan zen.

Gaur bezalaxe, Nafarroak gure herriarekin muga egiten zuen. Elkarren artean ezdabaida, abere-bahiketa, lapurreta, jazarpen eta ustekabeko armadun eraso asko izaten zirenez, Ataungo hidalgo edo handikiak beldurtu egin ziren. Ondorioz, ondasunak hobeto babestu eta salerosketetan parte hartzeko itzaropenean, Ataunek itun bat izenpetu zuen 1399ko apirilaren 8an eta Villafrancarekin batu zen, haren lege eta aginduak betetzeko konpromisoarekin. Gaztelako erregeak

Segoviako Turegano herrian izenpetu zuen elkartzeko haren onarpena 1402ko abuztuaren 5ean.

“Por mejoramiento de nos los sobredichos, e amparo e guarda de los mal fechos por quanto estamos en frontera de Navarra, para que seamos mejor defendidos de las fuerzas e sinrazones, por servicio del dicho señor Rey, e nos podamos vivir en mayor sosiego y paz (.....) entendemos que por la dicha vecindad, que seremos mejor defendidos, así en cuerpos como en nuestros bienes, de los caballeros que son en la comarca poderosos.
(Echegaray, C.: 1908 – 384-390 or.)

Ordurako Villafrancatik igarotzen zen Gaztelatik San Adrianeranzko Galtzada Nagusia. Hori dela eta, Alfonso X.ak baimena eman zuen 1268. urtetik aurrera villa izendatzeko. Izendapen hari esker, burujabetza, etekin handiagoak eta beste eskubide batzuk lortu zituen, fiskalitatea, ustiaketa eta kudeaketa administratiboa, besteak beste.



Aipatutako itunean, gainera, garbi geratu zen Ataunek berak kudeatu eta gozatuko zituela bere mugak, jabetzak eta mendi-ustiaketak. Dena dela, Villafrancako ordezkariak joango ziren Batzar Nagusietara eta haiek izango zuten erabaki politikoetarako ordezkaritza, eta bertan onartutako erabakiak eta ezarritako zergak bete beharko zituzten batutako herri guztiek. Halaber, herri guztiek ordaindu beharko zituzten gainerako gastuak.

1512an, sute handi baten ondorioz, Villafranca kiskalita geratu zen (etxe guztiak zurezkoak ziren). Egoera tamalgarri hura konpontzeko, Gaztelako Juana La Loca erreginak asteazkenetan azoka egiteko baimena eman zion Villafrancari. Baina erreginaren opari hark indartu egin zituen batutako herrietan aurretik zeuden iritzi kontrajarri eta desadostasunak. Izan ere, Villafrancako hidalgoek hartzen zituzten erabaki guztiak eta herritar asko baztertuta sentitzen ziren. Hidalgoen arabera, herritarrek ez zuten gizartea gobernateko gaitasunik eta ez zekiten administrazioak nola funtzionatzen zuen.

Bien bitartean, Villafrancan gero eta jende gehiago bizi zen, eta horrek herriaren egitura eta fisonomia erabat aldatu zuen. Merkatua gero eta garrantzitsuagoa zen, eta gogor ekin zioten harrizko etxe berriak eraikitzeari ere; alabaina, atxikitako herriak baztertuak sentitzen ziren, ez zeuden gustura, eta hainbat auzi aurkeztu zituzten hiribilduaren aurka. Gatazka luzeenetakoa kontseiluko partaide izateko sistemak eragin zuen (gastuak nola banatu, justizia nola antolatu, produktuen balioa izendatu, babesa antolatu, zerga-bilketak).

Hidalgoak eta familia dirudunak salbuetsita zeuden zergak ordaintzetik. Jokabide hori erabat bidegabea zela iritzita, auzitara jo zuten berriro 1506ean eta handik hogeit urtera jakin zen epaia: Villafranca zuten zebilen.

Villafrancatik desanexionatzea

XVI. mendearen hasieran, Espainiako koroak Europako gerrate batzuetan parte hartu zuen, eta, ondorioz, diru gutxi eta zor handiak zeuzkan. Gipuzkoako Batzar Nagusiek 1538an egindako Batzarrean aipatu zen Karlos V. erregea Europako gerraterako diru eta gizon gehiagoren eske etorri zela Gipuzkoara. Horrez gain, 1557ko maiatzaren 11ko batzarrean adierazi zen ofizialki zenbait herrik lortu zutela “villa”

izendapena, dirua ordainduta eta Espainiako Felipe II. errege berriaren baimenarekin Dena den, Felipe III.ak koroa hartu zuenean ere hainbat gerratan zebilen Espainia. Ingalaterraren aurka, esaterako, berealdiko porrota jasan zuen: 50 itsasontziko flota bidali zuten erresuma hartako itsasertza erasotzera, baina ekaitz gogor batek itsasontzi guztiak desagerrarazi zituen Azoreetara iristerako.

Gerrate haien ondorioz, zor handiarekin jarraitzen zuen Espainiako koroak. Egoera hura hobetzeko, diru-iturri berriak sortu zituen: zerga berriak, noblezia-titulua saltzeko aukera eta hiribildu berriak sortzeko baimenak.

Ordurako, ordea, deseroso zeuden Villafrancarekin batutako herriak eta haien nortasuna berreskuratu nahi zuten; une hari egoki iritzita eta gobernatzeko aski ziren ustean, berehala ekin zioten bide berriak urratzeari.

Horrela, Beasaingo ordezkariak Andres Telleria jauna aukeratu zuten 1614ko ekainaren 8an erregearengana joan, dirua ordaindu, Villafrancarekin izenpetutako ituna hautsi eta desanexioa lortzeko. Bide bera egin zuten eskualdeko herri gehiagok ere (tartean, Ataunek), eta Tolosa, Segura eta Villafrancarekin zituzten itunak bertan behera uzteko asmoa azaldu zuten.

1615ko otsailaren 4an, Espainiako errege Felipe III.aren baimenarekin eta biztanle bakoitzagatik 9.375 marabedi edo 25 dukatu (guztira 83.865 erreal) ordainduta, Ataunek Noble y Leal Villa titulua eskuratu zuen.

XIV. mendetik Villafrancarekin batuta egon ondoren, Ataungo ordezkariak Batzar Nagusietan partaide izateko eskubidea lortu zuten. Ataunen mugak erabaki eta dilijentziak bideratzeko, Espainiako erregeak Hernando de Rivera lizentziatu jauna bidali zuen gure herrira.



Herri baten izatea ez dago tratatuen, sortze-agirien eta errege-dohaintzen baitan. Herri baten izatea neurtzeko, kontuan hartu behar da ondare ukiezina ere: iraganeko eta etorkizuneko belaunaldiak, toponimoak eta memoria kolektiboa.

400 urte dira Ataun Ordiziatik desanexionatu zela. XIV. mendean batu zitzaion, baina ez modu naturalean. Administrazio-prozesu bat izan zen, prozesu formal bat Espainiako erregetzaren diru-arazoak konpontzeko.

Gipuzkoako antzinako dokumentuen arabera, bailaretan sortu ziren lehen herriguneak. Bozue izenekoan, esate baterako, elkarrekin agertzen dira honako izen hauek: Ordizia, Alzaga, Arama, Beasain, Gaintza, Itsasondo, Lazkao*, Legorreta, Zaldibia... eta Ataun.

Juan Arin Dorronsoro apaizak, bestalde, 1925eko lan batean dio honako hamalau baserri hauekin sortu zela Ataun: Axarresta, Larraza, Astigarraga, Arrondoa, Arin, Telleri, Zaindegi, Iztator, Okaraizti, Atallo, Barandiaran, Auzmendi, Bazterrika eta Etxagora. Ataun... Athatvit, Athagaun: erromatarren garaitik, behinik behin, kostaldera iristeko ateetako bat.

Identitateari eutsi nahiak, familia-harremanak eta herri-izaera indartzeak sendotu du gure komunitate-sena. Belaunaldiz belaunaldi sendotu ere, administrazioen, paper-sorten, tratatuen, konkisten eta hamarrenen gainetik. Egunez egun, hilabetez hilabete, urtez urte, mendez mende, lotzen gaituen haria ez da eten. Gure arbasoek egin zuten bezala, gaur egun ere herrigitzan dihardugu eta gure arteko kohesioari esker dirau gure herriak, Ataunek, gure hizkuntzak, euskarak, eta baita Euskal Herriak ere.

Horregatik guztiagatik, arbasoekiko errespetuagatik, gure uste osoagatik eta taldean sinesten dugulako, etorkizuna elkarrekin eraiki nahi dugu: inoren eskuhartzerik gabe geuk erabaki, ondorengoak ere Ataunen, Euskal Herrian bizi daitezen.

*Lazkao adierazten dugunean, jarraian aipatzen ditugun zazpi etxe edo baserriak direla zehaztu nahi dugu: Ibarrolaburu, Intxaurren, Izagirre, Iztueta (Bi etxe), Maiz haundi eta Garmendia.

2015eko azaroaren 5eko Udal Batzarrean aho batez onartutako adierazpena

**E
K
i
N
T
Z
A
K**

Azaroak 24, asteartea: *“Pagoa Markes”* duela 30 urte egindako antzerkiaren bideo proiektzioa eta Ion Aizpuruarekin solasaldia. Herri Antzokian iluntzeko 7etan.

Azaroak 26, osteguna: *“Ataun Villafrancatik desanexionatu zeneko 400.urteurrena”* hitzaldia Inazio Munduateren eskutik. San Gregorioko Elkargunean iluntzeko 7etan.

Azaroaren 23tik aurrera udaletxeko 1. go solairuan anexo eta desanexo dokumentuak eta **Xanti Iruretagoienaren** desanexo obra-lanaren deigarria egongo dira ikusgai.

Abendutik aurrera udaleko web orrian 400. urteurrena dela eta sortu den Dinamika taldearen ikusentzunezkoa ikusgai egongo da



Herritar Taldea Ataungo Udala